



----- euskaldunon konparttsaren aldizkaria -----



ASTE NAGUSIA 05

Muntaia
Ekitaldiak
Balorazioak

TOMAS DEUNA



AURTENGO MUNTAI MADA

2005eko maiatzaren 7an, Urduñan, hasi zen istorioa. Talde batzuk osatu genituen lanegin guztiak betetzeko.

-Aurten bai, denboraz hartu dugu eta primeran joango zaigu!

-Ze ondo, azken ostiralean ez dugu ezer egingo, disfrutatu eta gozatu muntatu dugun txosna ederra, besterik ez.

-Dena lotuta eta arduradunak denetarako, sukaldea, dekorazioa, txandak, muntaia, desmuntaia... eta gainera aurten Txokoa eta guzti!!

Ze ilusoak giñen!!

-Dekorazioarekin hasiko gara ezta?

-Bale, egun bat jarri.

-Astelehenetik aurrera goizez eta arratزالdez, norbait egongo da beti.

Egun batzuk pasatu ondoren dana berdin jarraitzen zuen.

-Beno transparentzietarako ez da jende asko behar

-Bai bestela ostopo egingo diogu elkarrri!

Batzutan ez zen agertzen ezta behar zen gutxieneko jende kopurua ere, bestetan etortzen zen jendea eta ez zegoen inor egoitzan.

-Beno ez badago inor ez naiz berriro etorriko, laguntzarik ez da behar izango.

Egoitza horretan lan egiten duenak aurrekaldeko dekorazioa ia ia osoa jan behar izan zuen.

Egunak aurrera eta ondo hasi zena desbideratzen hasten zen.



-Ostias kaña sartu beharko diogu, bestela ez dugu amaituko!

Satorrakekoak gure zain atzekaldeko dekorazioarekin hasteko, non eta Kukutzan.

HPHko bat Satorrakeko 6ekin egon zen transparentziak egiten, lehenengoak Satorrakenak, goiz baten. Arratsalderako Satorrakekoak ez ziren agertu, ezkerak HPHko bi kide gehiago hortik agertu ziren eta arratsalde horretan atzeko transparentziekin amaitu genuen.

-Eta orain pintatu non?

-Egoitzan, horrela errezagoa da jendea agertzea eta laguntzea.

-Bai, holan espero dut!

Dena egoitzara eraman eta oraindik aurrekaldea amaitu barik.

-Beno ba muntaiarekin hasi

beharko dugu, abuztuaren 13an gaude eta!

Tutuak ekarri zituzten adostu genuen baino 2 egun beranduago Karpa izan zen garaiz eta ondo ailegatu zen bakarra. Astelehenean tutuekin hasi ginen.

-Bale gaur 4 gaude ea biharko jendea datorren!

Asteartean 5 agertu, eta 2 furgona kargatzera, 1 elektrizitatearekin, eta beste biak ahal zutena egiten tutuekin buruzagirik gabe, txosna muntatzen ez oinik ezta bururik ere

-Baina nork daki zelan doan?

-Azpiegiturako arduradunak!

-Eta nor da ?

-Ez dakit

Egunak gora tutuak behera, listoiak gora bridak behera. Txosna forma hasi zen hartzen laguntzeko



RIKATUA

asmoz arratsaldeetan hurbiltzen zen jendearen borondate onarekin.

-Baina nor da arduraduna jendeari esateko zer egin behar den?

-Ba ez dakit

-Ba hasi atzekaldeko dekorazioa pintatzen.

Bitartean aurrekaldekoa amaitu zuten egoitzan. Tutuak eta listoiak jarri eta: *-Beno bihar jarriko dugu dekorazioa, utzi dana prest!*

Hurrengo egunean, goizeko 9etan:

-Pasatu dekorazioa

Pum pam pin pon,

-Pasatu azkenengo 2 panelak... Baina baina, ezin da izan, ez da sartzen!

-No me jodas! dekorazioa apurtu behar da!

-Ni pa Dios

-Baietz ba. Sukaldea haunditu dugunez dekorazioa txikiagoa gelditu zaigu

-Ala, ekarri kaladora!

Egunak gora eta oraindik atzeko dekorazioa pintatu gabe zegoen. Barruko mobidak beti atearekin, eta aurten bi ate. Atekaldekoa azken momentuan amaitu genuen. Horrela joan zitzaigun aste osoa, panelak eta ateak konpontzen.

-Beno horrela utzi eta listo, ezin dugu gehiago egin, Txupinera joan behar dugu,

-Baina, txokoa non dago?

2006an istorio hau errepikatuko da?

Ez dakit baina aurten ez dugu txokoa izan, agian datorren urtean ez dugu ezta zerbitzeko barrarik.

PINTURARIK GABE, SEKULAKO ZAPARRADA ETA KATALUNIAR BERRITSUA

Ostegunean zaindu behar izan zuen Euskal Gunea Hau Pittu Hau-k. Zaindarien gaua luzea eta astuna izan ez zezaten parrillada erraldoia antolatu zuten konpartsakideek.

Hainbat kidek lan itzela bete zuten txupina baino lehen txosna prest izateko; haiek etxera lo egitera alde egin ondoren, Euskal Guneako zaindarien lanari jarraipena eman zioten. Saiatu ziren, behintzat; baina gauak ustegabe galantak ekarri zizkien.

Fontso margolaria da eta panelak konpontzen hasi zen; Monikak, berriz, barraren ardura hartu zuen (eroso ikusten zaio barraren bi bazterretan). Euskaltel-Euskadik burutako *denboraldi bikaina* goraiatzeko barra laranja margoztea erabaki zuten. Orduan, arazoak baino ez ziren hasi: pintura laranja nahikoa ez zen dena betetzeko, eta beste bi edo hiru kolorez apaindu zuten barra. Ondorioa agerian geratu zen berehala: hippy itxura hartu zuen txosnak; loreak besterik ez zen falta, egia esan. Horregatik, Hau Pittu Hau-k ez zuen izan Aste Nagusiko barra politena, baina bitxia izan zela ez du inork ukatuko.

Lehenengo oztopoa behin gaindituta, bigarrena ekarri

zigen gauak: eguraldia gaiztotu eta sekulako zaparrada hasi zen. Monikak eta Fonsok gorriak ikusi zituzten panelak eta sorgailuak aterpean jartzeko. Zorionez, Eguzkizale parrandero baten laguntza jaso zuten.

Goizeko bostak zirelarik, atertu zen eta zaindarien jasankortasuna neurtzeko satellite ezezaguna agertu zen Euskal Gunean. Kataluniatik etorrita Bilboko gauaz gozatzeko asmoa zuen, baina, dirudienez, ez zuen topatu. Ordu luzea egon zen gure txosnaren aurrean ixildu ezinik eta bere bizitza osoa bota zuen. Goizeko seietan ospa egin zuen eta benetan eskertu zuten gure konpartsakideek.

Baina txarrena etortzekoa zen. Goizeko zazpitan, Euskal Guneako hornitzaile guztiak agertu ziren. Zoratzekoa izan zen. Txosna batetik bestera korrika ibili ziren Hau Pittu Hau-ko kideak: galduta zebiltzan kamioiak zuzentzen, hornidurak jasotzen (Pepsi, Coca Cola, Mahou, ardoa, zukuak, hamalau butano bonbona Txori Barrote-rentzat eta Satorrak-en komuna, etab.). Gau luzea eta nekagarria izan zen, baina ez aspertzeko modukoa, inondik inora.



ki egon zen



BERRESKURA DEZAGUN TXUPINA

Batzutan, urteak igaro eta gero, ikusten dira gure ekintzen ondorio txarrak. Gaur egun Bilboko Konpartsen aldetik autokritika egiteko garaia heldu zaigu, gutakoak izan baitziren txupinazoan irina bota zuten lehenengoak. Aurtengo txupinazorako zikinkeriaren aurkako kanpaina egin badugu ere, ezer gutxirako balio izan du, tamalez. Lan gogorra dugu txupinazoa berreskuratzeko.

Dena den gure arazoa ez da soilik zikinkeria famatua. Kontu asko ditugu berreskuratzeko, bai Bilboko Konpartsek, bai Hau Pittu Hauk. Alde batetik konpartseroen partehartzea gero eta urriagoa da. Duela urte gutxi posiblea zen telebistako irudietan konpartsa guztien kamisetak ikustea, orain ordea, zikinkeriak beldurtuta edo, ikusezinak gara. Pregoia eta txupinaren uneak ere gero eta makalagoak dira, ardua handiago baitugu arrautzetatik babesa hartzeaz jaiaren hasieraz baino. Gure konpartsen aldetik, aspaldiko partez pregoian erdara entzun izan denean ez dugu



Hau Pittu Hauko kideak txupinean

erantzunik eman.

Konponbideak ez dira errezak baina argi eta garbi ezin dugu gu botatzen utzi, Bilboko Konpartsek antolatzen baitute pregoia Bilboko biztanleria guztiak goza dezan. Beraz 2006eko txupinazoan hor egon behar dugu, lehenengo lerroan, arrautzak eta irina botatzen dutenen ondoan, aurpegira esaten ez dutela jaiak boikotatzeko eskubiderik. 700 edo 800 konpartsero baldin bagaude Arriaga plazan zikinkeria ekidin nahian seguru batek baino gehiagok pentsatuko duela birritan irina botatzearena.

Hau Pittu Hauri dagokionez urte tristea izan da aurtengoa. Juanjo Sansebastian pregoilariak

erdarazkoa bota zuenean gure txistuen musika ez baitzuen entzun. Hainbeste urte eman dugu Euskara hutsezko pregoia eskatzen, nahiko arrakastarekin, eta aurtan atzera jo dugu.

Aizue, ezin dugu guzti hau onartu, erosoago eta garbiago egongo gara txupinazoa txosnatik edo etxetik telebistan ikusten baina Arriaga plazan borrokan dagoena ez da gutxi. Erakutsi behar dugu badagoela jendea Bilbon Euskara eta Jai herrikoien alde, Bilboko euskaldunok merezi dugula gutxienez urtean behin ekitaldi garrantzitsu bat euskara hutsean, eta hori dana txerrien moduan bukatu barik. Gure esku dago.



Efrenek eta Gabik Bebe abeslariaren bertsio berezia egin zuten Play Back-en

ASTE NAGUSIKO ASTELEHENA: EGUNIK ONENA

Zalantzarik gabe, Aste Nagusiko egunik onena astelehena da. Zergatik? Argi eta garbi, gure eguna delako. Onena da, bai, baina neketsuena ere, behintzat lan egiten dugunontzako.

Goizeko 9etan Pako eta Txomin bazkarirako erosketak egiteko geratu ziren. Menua: makarroiak, solomo patatekin eta postreak. Behin guztia erosita, txosnara abiatu ziren eta bertan zegoen jende guztiaren laguntzarekin bazkariaren prestakuntza hasi zen.

Aurten jende asko ez zegoelako, edo beste arazo batengatik, Mari Jaia

ez zegoen gurekin. Dena den, poteoa egiteko Txosnan geratuta geunden. Hala ere, deialdiak ez zuen arrakasta handirik lortu, zeren eta jendea nahi izan zuenean etorri zen, gehienak bazkarirako justu justu. Pitturen barnetegitik

etorritako ikaskideak aipatu behar dira. Multzo handi bat etorri zen eta haiei esker jende kopuru majoa batu ginen. Ea baten bat animatzen den eta konpartsan sartzen den.

Bazkaldu eta gero, gure urteroko "show"-arekin hasi ginen. Hasteko, konpartsero sariak. Aurtengo sariak bereziak ziren, iazko txosnaren dekorazioko zatiak baitziren. Hau da, Gernikaren zati bat eman genion saridun bakoitzari. Eta zelan ez! Saridunak aurpegi ezagunak ziren: Aintzane (parrandazale), Peru (langilena), Astrabu (txandalaririk txarrena),

*Astelehena
e g u n
neketsuena
da, behintzat
lan egiten
dugunontzako*



Gabi (beti euskaraz), Tasio (oxtia txarra), Fontso (konpartsakide berririk onena). Eta aurtengo EUSKARA SARIA Demoentzat izan zen. Euskal makil bat oparitu genien, euskararen alde egin duten lanagatik.

Konpartsero sarien ostean, "Playback" txapelketa heldu zen. Aurten ez genuen Kanpiren parte hartzerik izan, baina oso ondo egon zen. Gainera, gure playbackak mugak zeharkatzen ditu, eta konpartsatik kanpoko talde bat aurkeztu zen, irabazlea! Lau talde

Gure playbackak mugak zeharkatzen ditu, eta konpartsatik kanpoko talde bat aurkeztu zen, irabazlea!

aurkeztu ziren. Lehenengoan, Efrenek eta Gabik Bebe abeslariaren bertsio berezia egin zuten. Hurrengoek, Enekok, Astrabuk, Txominek eta Jimmyk Mcnamararen abesti bat Drag Queen-ez jantzita aurkeztu zuten. Gero, irabazleek talde txunda baten koreografia eskaini ziguten. Eta bukatzeko, barnetegitik

etorritakoek abesti heavy baten bertsioa antzeztu zuten.

Playbackaren ondoren, Hau Zorabio Hau ailegatu zen. Taldeek HPH-ko antolakuntzak egindako froga batzuk gainditu behar zituzten. Bilbo ordu erdi batez hankaz gora jarri eta gero, Jimmyk, Enekok, Astrabuk, Pirrikik eta Txominek osatutako taldeak irabazi zuen.

Bukaerarako, betiko lez Bertso Triki Kalejira. Arazo teknikoak direla eta, ordu bat beranduago hasi zen kalejira. Urtero bezala Plaza Berritik Marijaia,



Bersto Triki Kalejiran Plaza Berritik Kalderapekora abiatu ginen



Makarroiak eta solomo patatekin bazkaldu genu



bertsolariak: Xabi Paia, Iratxe Ibarra, Onintza Enbeitia eta Etxahun Lekue hain zuzen, eta konpartsakideak irten ginen bederatzietan, bi zutabetan bananduta. Gu Kalderapekora abiatu ginen Onintza, Etxahun eta Marijaiarekin. Beste zutabea, ordea, Iturribide kalera joan zen gurekin Somera kalean beranduago elkartzeko asmoz.

Onintzak eta Etxaunek giro ona sortu zuten eta guztiok barre egin genuen haien bertsoekin. Morga tabernaren aurrean bukatu zen saioa euskal estiloko «Romeo eta Julieta» parodia egiten.

Bertsu Triki Kalejiraren ostean dantzatzeko ordua heldu zen Euskal Gunean Ene Bada taldearen eskutik.



DEMOAK TALDEAK «EUSKARA» SARIA JASO ZUEN

Ezusteak konpartsa-
sarietan

Euskararen alde lan egiteagatik ematen den saria Demoak taldeak jaso du aurten. Horrela erabaki zuten Hau Pittu Hau-ko kideek Konpartsero Egunean urtero egiten den bozketan. Saria jasotzeko Iparraldetik etorritakoek txosnetatik pote batzuk hartu zituzten bazkaldu baino lehen eta txosnen egiturek harritu zituzten.

Beste alde batetik, ustegabe ugari izan genuen Konpartsak Aste Nagusian antolaturiko sari banaketan. Berrito ere, Gabik eta Astrabuk sari bana jaso zuten. Astraburi «Txandalaririk txarrena» egokitu zitzaion, iaz «Parrandazale» jaso ondoren. Eta hori txanda bat ere egin barik oraindik. Gabik, ordea, «Beti Euskaraz» saria jaso zuen

bigarren aldiz, Zeliak oso gertu izan bazuen ere. Agian, datorren urtean lortuko du.

Saridun berrien artean Peruk «Langileena» erraz irabazi zuen Pakoren aurretik; 11 boto atera zizkion iazko irabazleari Peruk. Fonsok ere nahiko aise lortu zuen bere saria, «Konpartsakide berririk onena», hain zuzen.

Tasiok eta Aintzaneke ere sariak jaso zituzten. Aintzaneke lehia estua izan zuen «Parrandazale» lortzeko, eta bi botori esker Astrabu menderatu zuen. Azkenik, «Oxtia txarra» saria lortzeko borroka latza izan zen, Kanpiren eta Tasioren artean; atxikimendu berdina lortu zuten eta, baina Kanpi Argentinan zen eta, beraz, Tasiore ematea erabaki zuten epaimahaiakoek.





HAU HAU

ASTE NAGUSIA IRUDITAN-



Oso konpartsakide gutxi muntaian

Mugak zeharkatzen play back-



Aparteko teknika erakutsi genuen soka-tiran





ekin



Barraskiloeak irabazi zuten Gararen Banderilla

Etorkizuna badu gure konpartsak



Txupinera euskararikasten

Sekulako giroa sortu zuen Hau Pittu Hau-k Herri Kiroletan



HAU HAU

ASTE NAGUSIKO

KIROLAK MENPERA



Lehengo Hau Hau-an norbaitek idatzi zuen herri kirolak eta kirolak orokerrean Hau Pittu Hauk ez duela trebetasunik. Aste Nagusiko lehiaketetan parte hartu genuenak hori goitik behera onartu behar dugu.

Gorriak ikusi genituen Ur Jokoetan parte hartzeko, baina bigarren sailkatu ginen, Satorrak Konpartsaren laguntzari esker. Trainerilletan, berriz, nahiko makal ibili ginen. Egia esan, gure sailkapena ez dugu gogoratzen, eta eskerrak eman behar ditugu





ETA ARDOA EZ DITU TZEN HAU PITTU HAU

trainerilla ez hondatzea. Adituek diote trainerillak tirabira ez duela inoiz egiten, baina txalupa barruan egon ginenok zalantza handiak izan genituen; batez ere, alde batetik bestera nola mugitzen zen behin ikusita.

Satorrak Konpartsakoek, marrazkilo mozorrotuta, guk baino askoz hobeto egin zuten arraunean. Gure auzokideek lehiaketa irabazi zuten eta «bala horia» ezizena jarri zioten trainerillari. Hain zuzen, Gara egunkariaren banderilla kendu zioten Tintigorri Konpartsari, eta hori sekulako poza izan zen

batzuentzat.

Zapatuan, ardo dastaketa izan zen konpartseen arteko bazkaria baino lehen. Berriro ere, Satorrak-ek irabazi zuen handik zegoen adineko bati esker. Gure aldetik, Aitorrek, Monikak eta Peruk parte hartu zuten lehiaketan eta Satorrak Konpartsako Guiñosen laguntza jaso arren, ez genuen irabazi; alegia, Satorrak-en nagusiak gure Guiños maiteak baino gehiago zekien ardoari buruz eta. Dena dela, mozkorra galanta harrapatu zuten parte-hartzaile

batzuek ikastaroa eta lehiaketa batera zirelako. Baina zerbait ikasi zuten denek ardo ikastaroan: Eguzkizaleen ardo kaltegarriena zen.

Herri Kiroletan ere lehiakide txarrak izan ginen, baina sortu genuen giroa paregabekoa izan zen. Gabik eta Pakok beste konpartsen parte-hartzea girotu zuten txistuaren bitartez. Are gehiago, Astraburi indarrak ematen saiatu ziren txingan parte hartu zuenean; baina Aste Nagusiko azken zapatuan ez dago inondik indarrak hartzeko, ezta musikatik ere.





AURTENGO ASTE NAGUSIA ONTZA KONPARTSAK FEDERAKUNDEAK

Irrintzi, Arrainak eta Aixe Berri konpartsen dekorazioa

Koordinakundeak Bilboko Jaiei buruzko biltzarra antolatu zuen urriaren 22n eta 23n, eta hausnarketa egokia egin zuen, orokorrean. Eguraldi eskasa izan arren, Jai Gunean sortutako giroa

ona izan da, eta jendeak jaiaz gozatu du. Alde txarrean, Konpartsakide batek jasotako sexu-erasoa eta udaltzaingo baten harrokeriak nabarmentzekoak dira.

Iragan urtean Bilboko Jaietan gertatutakoa gertatu ondoren eta inauterietan Udalarekin izandako arazoak direla-eta, Aste Nagusi aberatsa bat izatea behar genuen eta aurtengoa horrelaxe izan da, orokorrean, Bilboko Konpartsen ustez. Hala eta guztiz ere, oraindik jorrazteko hainbat gauza dira.

Halanola, txupin garbi baten alde Bilboko Konpartsek kaleratutako kanpainak ez zuen arrakasta gehiegirik izan; berriro ere, jaien hasiera zikindu zuten hirinak eta arrautsak.

Apainketa hobetzea premiazkoa da: txosna batzuen itxura nahiko kaskarra da-eta, koordinakundearen ustez. Hortaz, konpartsek ahalegin handia egin behar dute apainketan, gizarteak asko baloratzen dudalako. Hori bultzatzeko dekorazio hoberena saritzea edo txarrenari bandera marroia



Bertsu Bazkariak gero eta arrakasta haundiagoa du

ematea proposatu zen. Eztabaida horrek bere onetik atera zuen Pakok, konpartsa batzuen jarrera ikusita. Horregatik, inork esan nahi ez zituen izenak botatzen hasi zen; Pakoren ustez Irrintzi, Arrainak eta Aixe-Berri konpartsen dekorazioa kaka hutsa izan zen Bilboko Jaietan. "Baita beste batzuen ere, baina orain ez zaizkit bururatzen", esan zuen, hain justu.

Egia esan, guztiok

hobetzeko dugu, esaterako, eguneko giroa. Ezbairik gabe, gauzez giro oso ona sortzen dugu jaigunean, baina egunean zehar ez dago gauza bera esaterik. Konpartsak egunez antolaturiko ekitaldietan gauzez ez direnak parte har dezaten ezinbestekoa da, ikus dezaten jaiaren parte garela eta ez taberna bat besterik ez.

Bilboko Konpartsak Federakundeak gero eta ekitaldi gehiago antolatzen



AT HARTU DU BILBOKO

azioa kaka hutsa da, Pakoren ustetan



Ikurrinari omenaldian gero eta jende gutxiago dago

ditu Aste Nagusian, baina ekitaldi berdinak egitea edo era berean antolatzea galdetu behar diogu geure burei, azterketa sakona eginik: Ikurrinari Omenaldiak, adibidez, gero eta parte-hartzaile gutxiago du, eta gainera udalak oztopatu egin gaitu; zaila izango da ikuskizun ederra antolatzea hemendik aurrera. Horrexegaitik, datorren urteari begira aldatzea ezinbestekoa izango da.

Bestetik, Gastronomikoa,

Hiri Krosa, Mus Txapelketa edo Bertso Bazkari ospakizunek gero eta arrakasta handiagoa dute eta poztekoa da. Dena den, ezin gara geldirik geratu, eta ekitaldi berriak sortu behar ditugu edo berreskuratu iraganean sekulako arrakasta izan zutenak, hots, Hontzakek sokamuturra berrartzea proposatu zuen eta Begoñako jaitsiera berriro egitea izan zen Tintigorrik proposatu zuena, hain zuzen ere.

H P H r e n
A S A N B L A D A N
K R I T I K A K
D E S B E R D I N A K
E T A G O G O R R A K

Irailaren 30a, Barikua,
19:30

Kirruliko atean ez da kolore morerik ikusten. Bai, oster, konpartsakide batzuk faenakoa ez den beste uniforme batzuekin. "Inkognitoz" agertzea izan al zen baldintza?

..., 20:00

Badirudi prest gaudela denok gure Aste Nagusi honetako kronika azaltzeko. Kritikak ugariak, desberdinak eta gogorrak izan ziren. Betiko iritziak: jendearen inplikazioa handiagoa izan behar du...; iritzi berriak: jende berria behar da konpartsan...; eta denbora luzean bueltaka ibili direnak eta eztanda kritiko honetan botatakoak: Euskal Herrian Euskaraz eta konpartsaren arteko harremanak aldatzeko beharra.

..., 22:30

Bazen garaia! Afaria prest eta gu deabruko gosearekin. Entsalada, piper beteak, bularkiak patatekin. Postrea ez dut gogoratzen. Eta hortik aurrera gertatutakoa ere nahiko lainotuta azaltzen da hainbat konpartsakideren buruetan. Alkoholaren eragina, alajaina.

Orain bai, Kirrulin "moratuak" agertzen hasi dira...



AKORDIO SOZIO ZER...?

Ziur behin baino gehiagootan "Akordio Sozio Politikoa"ri (ASP) buruzko gora beherak entzungo zenuituela albistegietan. Hitz potoloa denik inork ez du ukatuko baina...Zer ote dago hotsandiko hitz horren atzean?

ASPren izaera eta zergatia ulertzeko, euskarak mendeetan zehar Espainiar eta Frantziar estatuetatik pairatu izan duen jazarpen estrategiaz ohartzea ezinbestekoa da. Ildo zapaltzaile horrek historian zehar etenik izan ez duela ezaguna da; baina, egia da ere 1998. urtetik aurrera nabarmen areagotu zela. Gogoan izan editore eta banatzaileen kontrako polizi operazioak, ikastolen aurkako toxikatze kanpainak, AEkko zenbait kideren auzipetzea...

Euskararen normalkuntza prozesua moteltzen ari zela ikusirik eta euskalgintzak denboraldi horretan pairatutako eraso bortitzen jarraipena ekiditeko, Kontseiluak 2004. ean Euskal Herriko 11 eragilerekin batera (ANV, Aralar, Batasuna,



Euskalgintzak pairatutako erasoak ekiditeko sinatzen da ASP

EA, Zutik, EHNE, ELA, ESK, HIRU, EILAS eta LAB) ASP sinatzen du jendaurrean.

Eragile hauek euskalgintza babesteko eta euskararen normalkuntza azkartzeko konpromisoen biderei ekin diote. Konpromiso hauek 5 lehentasun eta egitasmoetan islatzen dira.

1. Euskararen legedia.

Udal ordenantza eredugarriak adostu eta udaletxe guztietan proposatu.

2. Hezkuntza eta unibertsitatea.

Euskaldunduko duten eredu pedagogikoak zehaztu.

3. Lan mundua.

Lan mundua euskalduntzeko fundazioa sortu.

4. Hedabideak.

Komunikabideek

euskarara erabiltzeko gutxieneko kuota sistema bat proposatu.

5. Euskalgintzaren babesa.

Euskalgintza k pairatutako kalteak zenbatu eta nazioartean horren berri eman.

Bistan denez, asmoen adierazpen hutsa baino askoz gehiago da ASP. Edukiz jositako tresna dugu eskuartean eta, dagoeneko, sinatutako konpromiso hauetan lanean ari dira eragileak. Denborak esango digu egitasmo handi honekin euskararen normalkuntzan aurrera pausu garrantzitsua emateko gai garen edota konpromiso hauek sinatzerakoan eragileek erakutsitako determinazio bera mantenduko den akordioa praktikan gauzatzeko orduan.



Gure Herriko jaien inguruan bazkaria eta edaria egoten dira, eta oturuntzak antolatzeko ohituta samar gaude. Jaietan parte hartzen duten GUZTIEK primeran baino hobeto igaro dezaten antolatzen dira jaiak. A, ze zoragarria den parrandan ibiltzea!

Bart, bart, bart, bart parrandan ibili, bart parrandan ibili...

Baina zertan datza parrandan ibiltzea? Hona hemen hiztegiak emango digun definizioa: **Parranda:** *Olgeta, jostatze, edo jai zaratatsua.*

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili, ez naiz ondo ibili...

Flash-back bat: duela urte gutxi txosnetatik ibiltzen zen Aste Nagusiaren leloa “*Babosoak kanpora*” zen. Aurten ere, Baiona, Iruñea, Bilbo eta beste herrietako jaietan neskek nozitu dituzten jazarpenak hain ugariak izan dira non

tamalez, “*Babosoak kanpora*” jai guztien leloa izaten jarraitu beharko lukeela dirudien.

Eta zertan datza “*baboso*” izatea? (Real Academiaiko Hiztegitik itzulita): **Baboso:** Adur likina dariona. / Egiten, esaten eta gogo izaten diharduenaz jabetzen ez dena. / Babalore, artaburu. / Handizale,

lausengatzaile.

Beste *flash-back*: aurtengo konpartsero egunean, barraskilodun kamiseta ubelaz jantzitako mutiko bat, kolore berberako kamisetaz jantzitako (baina beste konpartsa bateko) neska batzuei gaztelerazko

irainetan (“camioneras, marimachos, bigotudas”) joan zitzaien oihuka (irainak ez dira txantxak, **erasoak** baizik).

Jaietan neskengan inolako begirunerik ez zeukatela erakutsi zuten beste barraskilo batzuek dantzatzean *baboso* joerarekin, eta inorengan

begirunerik ez zeukatela bistan geratu zen kalejiran (tabernaz taberna pintxo lapurretan joaten zirenean, eta guztientzako edari osoa edaten zutenean)...

Aizu, txikito, mozkortuta egoteak *baboso* zinez bihurtzen zaitu, baina ez dizu ematen besteei oilartzeko inolako eskubiderik. Babosoak kanpora!

« Babosoak kanpora » jai guztien leloa izaten jarraitu beharko lukeela dirudien



HAU HAU

TOMAS DEUNA



EGITARUA

- 10:00 Txosna irekiko da
- 12:00 Txalaparta saioa eszenatokian
- 12:00 Bi txerri erreko dira txosnaren alboan. Pintxo gehi potea 1,5 euro
- 13:00 Bertsolariak eszenatokian. Arkaitz Estiballes eta Fredi Paya
- 13:30 Triki-Poteoa Arizgoiti taldearekin Areatzatik eta Alde Zaharretik
- 14:00 Bilboko gaiteroak eszenatokian
- 14:00 Indaba jana Esperantza pelotalekuan. 10 euro.
- 17:00 Erromeria Arizgoiti taldearekin
- 18:00 Saskien zozketa Gilkiltzaro taldearen eskutik
- 18:30 Erromeriaren bigarren saioa

HAU PITTU HAUren EGITARUA

- 12:00 Txosnaren aurrean geratu gara
- 14:00 Txanda daukagu laurak arte
- 18:00 Txosnaren aurrean geratu gara



BERBALAGUNA, EUSKARA KALERA PLAZARATZEKO AUKERA

Aurten Konpartsakide batzuek Berbalagun proiektuan parte hartzen dihardute, baina... ze demontre da berbalaguna? Ba, euskaldun berriak (ikas prozesua orain dela gutxi amaitu dutenak edo aspaldi estankatuta dabiltzanak) eta euskaldunak, talde txikietan giza-harremanetako jardueretan berriketarako astean ordubete batzea da.

Berbalagun ekimenaren helburuak "ia euskaldun" direnen hizkuntza gaitasuna eta erabiltzeko ohitura sustatzea, hizkuntzaren kalitatea hobetzea, eta erabilera esparru berriak lortzea dira. Bilbo mailan, momentuz, egitasmo hau Santutxuko AEK-k eta Asapala euskara elkarteak antolatzen dute.

Jendea ezagutzuz eta harreman berriak sortuz, Euskaraz egiteko eta ikasteko aukera ona, ahalegin gutxikoa eta oso polita da.

Zeuk ere berbalaguna bihurtuz zure ekarpen txikia egin dezakezu euskararen alde.

